2022ko irailean erregistratutako langabezia

2022ko irailean zehar LANBIDEko bulegoetan % 1,83 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 111.680 da, hau da, aurreko hilean baino 2.564 gutxiago. Irail honetako datuek, azken urteetako bilakaerari erreparatzen badiogu, esperotako joera jarraitu dute; 2015. urtea baino lehen langabezia hazi egiten zen irailean.

Nabarmendu behar da, irail honetan erregistratutako langabetu-kopurua 2008tik hilabete horretan izandako txikiena dela. Ordutik hona, 2019koa izan da gehien hurbiltzen zaiona; urte horretako iraila oso ona izan baitzen, haatik, 1.954 langabe gehiago zenbatu ziren.



	ira.-08	ira.-09	ira.-10	ira.-11	ira.-12	ira.-13	ira.-14	ira.-15	ira.-16	ira.-17	ira.-18	ira.-19	ira.-20	ira.-21	ira.-22
Saldoa	1.087	3.076	1.256	1.177	4.014	3.379	349	-347	1.002	-1.164	-569	-2.444	-1.692	-2.768	-2078

Aurreko urteko irailarekin alderatuz, 7.812 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren murrizketa azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean 1.011 pertsonatan murriztu da langabezia; emakumeen artean, berriz, 1.067 pertsonatan. Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-4.687) emakumezkoen arten baino (-3.125). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko irailarekin alderatuz, 1.105 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, berriz, 849 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 57,9 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da. Murrizketa handiena, 35-44 urte artekoetan erregistratu da (-% 3,27); murrizketa txikiena, aldiz, 25 urtetik beherako gazteen artean izan da (-6).Urte arteko bilakaeran, 44 urtetik beherakoen artean jaitsi da gehien langabezia; 35-44 urte artekoetan izan du bilakaera onena. 54 urtetik gorakoen tartean hazi da soilik langabezia; % 0,95 hain zuzen ere.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Irailean, balio erlatiboetan, honako jardueretan murriztu da gehien langabezia; lehen sektorean (-% 9,3), eraikuntzan (-% %) eta industrian (-% 3,8). Zerbitzuetan ere murriztu egin da, % 1,16 hain zuzen ere; balio absolutuetan jarduera horretan eman da beherakada handiena (921 langabe gutxiago). Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da eraikuntzan (-% 14,80), industrian (% -14,06) eta lehen sektorean (% -13,20) egon diren beherakadak. Zerbitzuetan % 2,74 murriztu da soilik. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 14,60 murriztu da azken urtean.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren beherakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

53 Hezkuntza ..... -1.059

56 Jan-edarietako zerbitzuak ..... -460

43 Eraikuntzako jarduera espezializatuak ..... -228

01 Nekazaritza, abeltzaintza..... -192

47 Txikizkako merkataritza..... -187

25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik ..... -174

74 Beste jarduera profesional, tekniko eta zientifiko ..... -150

41 Eraikinen egitea..... -144

Aitzitik, irailean erregistratutako langabeziaren hazkunde handiena izan duten jarduerak honakoa izan dira:

87 Egoitza-establezimenduetako laguntza ..... +429

81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak..... +395

84 Administrazio publikoa..... +338

97 Etxekoen unitateak etxeko langileen enplegatzaile gisa..... +185

88 Ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetako jarduerak..... +143

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 659 pertsonatan murriztu da (- % 1,2) eta epe laburrekoa, ere, murriztu egin da (1.419 pertsona gutxiago, -% 2,45). Urte osoari begiratuz gero, epe luzeko langabeen artean murrizketa eman da (-% 10,81); epe laburrekoen kasuan, ere, murriztu egin da, baino dexente gutxiago (% 1,94). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia nabarmen igotzea eragin zuen; gaur egun, zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 55.280 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 49,5a.

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena, gizonezkoek, 30 urtetik beherakoek eta Bizkaian bizi direnek izan dute.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Iraileko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 1,36 murriztu da, abuztuen baino 268 langabe gutxiago, 19.378 langabe guztira; hil honetan bilakaera okerrena erregistratu duen lurraldea izan da. Gipuzkoan % 1,98 murriztu da, 592 pertsona gutxiago daude langabezian abuztuarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 29.281ekoa da). Azkenik, Bizkaian 1.218 langabe gutxiago daude (% 1,90eko murrizketa), langabetu kopurua 63.021 da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 7,23ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 6,83ko murrizketarekin eta azkenik Araban % 3,76 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean langabezia 374 pertsonatan murriztu da (-% 1,69), Vitoria-Gasteizen 256 pertsonatan murriztu da (-% 1,70) eta Donostian 126 pertsonatan murriztu da (-% 1,76). Langabezia, landa eremuko zenbait lurraldeetan hazi da soilik; Gorbeia ingurua eta Arabako lautadetan kasu. Bestalde, beherakada handienak honako eskualdeetan gertatu dira; Ezkerraldea (-256), Durangaldea (-152), Gobela (-140), Ibaizabal (-137) eta Donostia Ekialdea (-112).

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,11), Sestao (% 16,06), Oion (% 15,46), Balmaseda (% 15,42) eta Amurrio (% 15,18).

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2022ko irailean 37.735 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.436 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,8k gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 21.121 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,9 dira horiek. 16.614 langabek (% 14,88), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,8), Bizkaian % 32,6koa da eta Araban % 33koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,65 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz, aldiz, 0,58 puntu hazi da.

• JATORRIA

Langabeen % 16 (17.827 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia hazi egin da atzerritarren artean (+% 0,9); bertakoen artean, berriz, murriztu egin da (-% 2,33).

Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 2,96 murriztu da, eta bertakoen artean % 7,19.

Langabe atzerritarren % 34,8 Afrika iparraldekoak dira, % 22,7 Latinoamerikatik datoz, % 18,0 Europako Esparru Ekonomikotik, % 12,4 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,3 Asiatik. Irailean Afrikako iparraldetik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (+273);

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 59,2k (66.127 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 746 langabe gutxiago erregistratu dira; % 1,12 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 6,96 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 2,28 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean, aldiz, % 8,68 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.118 dira, hau da, langabeen % 18,9. Talde hau irailean zehar % 1,23 murriztu da, eta azken urtean ere, murriztu egin da; % 4,84, hain zuzen ere.

Azkenik, langabeen % 13,1ek (14.615 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 5,43 murriztu da langabezia azken hilabetean eta, azken urtean, aldiz, % 5,54koa izan da murrizketa.

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan, aurreko hilean baino 17.679 langabe gehiago daude (% 0,6ko gorakada). Guztira 2.941.919 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,83 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 0,73 hazi da, Errioxan % 5,16 murriztu da, Kantabrian % 2,03 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 0,46 hazi. Katalunian % 0,96 hazi da eta Madrilen, aldiz, % 0,04 murriztu da.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko irailean

	Ira-2022	Abu-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	47.049	48.060	-1.011	-2,10
EMAKUMEZKOAK	64.631	65.698	-1.067	-1,62
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	17.557	17.772	-215	-1,21
GIZONEZKOAK	8.242	8.323	-81	-0,97
EMAKUMEZKOAK	9.315	9.449	-134	-1,42
25-44 URTE:				
GUZTIRA	33.719	34.758	-1.039	-2,99
GIZONEZKOAK	12.894	13.394	-500	-3,73
EMAKUMEZKOAK	20.825	21.364	-539	-2,52
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.404	61.228	-824	-1,35
GIZONEZKOAK	25.913	26.343	-430	-1,63
EMAKUMEZKOAK	34.491	34.885	-394	-1,13
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.006	2.211	-205	-9,27
INDUSTRIA	11.732	12.194	-462	-3,79
ERAIKUNTZA	6.699	7.053	-354	-5,02
ZERBITZUAK	78.280	79.201	-921	-1,16
AURREKO ENPLEGURIK GABE	12.963	13.099	-136	-1,04

2022ko irailean erregistratutako langabezia

LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.378	19.646	-268	-1,36
BIZKAIA	63.021	64.239	-1.218	-1,90
GIPUZKOA	29.281	29.873	-592	-1,98
EAE	**111.680**	**113.758**	**-2.078**	**-1,83**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.768	10,1%	-35	-0,92	-271	-6,71
Oarsoaldea	3.344	9,1%	-95	-2,76	-381	-10,23
Donostia-S.Seb.	6.918	7,8%	-126	-1,79	-769	-10,00
Donost.Mendebaldea	2.904	7,7%	-112	-3,71	-262	-8,28
Tolosaldea	1.885	7,9%	-10	-0,53	-96	-4,85
Urola Erdia	1.219	7,8%	-26	-2,09	31	2,61
Goiherri	1.650	7,6%	-16	-0,96	18	1,10
Deba Garaia	2.415	8,0%	-88	-3,52	-80	-3,21
Deba Behera	2.641	10,0%	-66	-2,44	-151	-5,41
Urola Garaia	1.089	8,9%	-30	-2,68	-13	-1,18
Urola Kosta	1.448	6,4%	12	0,84	-172	-10,62
GIPUZKOA	29.281	8,3%	-592	-1,98	-2.146	-6,83
Vitoria-Gasteiz	14.830	11,8%	-256	-1,70	-916	-5,82
Aialako Ibarra	2.209	11,8%	3	0,14	-103	-4,46
Arabar Errioxa	524	9,7%	-71	-11,93	-64	-10,88
Arabako lautada	706	9,3%	-19	-2,62	-11	-1,53
Gorbeia inguruak	299	6,4%	8	2,75	-16	-5,08
Arabako Ibarrak	411	8,0%	7	1,73	-10	-2,38
Arabako Mendialdea	98	6,3%	0	0,00	-10	-9,26
ARABA	19.378	11,6%	-268	-1,36	-757	-3,76
Gobela	4.499	8,9%	-140	-3,02	-353	-7,28
Txorierri	2.084	9,1%	-77	-3,56	-168	-7,46
Uribealdea	2.874	8,7%	-15	-0,52	-286	-9,05
Durangaldea	3.195	8,6%	-152	-4,54	-417	-11,54
Busturialdea	2.076	9,7%	-12	-0,57	-140	-6,32
Lea-Artibai	923	7,7%	-7	-0,75	-73	-7,33
Enkarterriak	1.934	12,7%	-41	-2,08	-175	-8,30
Arratia-Zornotza	1.422	8,2%	-21	-1,46	-115	-7,48
Arratia-Nerbioi	1.357	10,6%	11	0,82	1	0,07
Bilbo	21.805	12,9%	-374	-1,69	-1.364	-5,89
Ezkerraldea	16.372	13,2%	-256	-1,54	-1.384	-7,79
Ibaizabal	4.403	11,0%	-137	-3,02	-422	-8,75
BIZKAIA	63.021	11,3%	-1.218	-1,90	-4.909	-7,23
EAE	**111.680**	**10,4%**	**-2.078**	**-1,83**	**-7.812**	**-6,54**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.